



KOMIKIA

ISBN: 978-84-18252-75-4

ORRIALDEAK: 128

FORMATUA: 21 x 28

PREZIOA: 24,50 €

- Alexandre Jacoben biografia ilustratua, Lupin pertsonaia literario ezagunaren oinarri dena.
- Netflixen «Lupin» telesailaren bigarren denboraldia estreinatu berri da, Jacoben bizitzan oinarriturik.
- Sariak: Lycéen Social BD; Quais du Polar BD 2019.
- Aldibereko argitalpenak euskaraz, gaztelaniaz eta katalanez.
- Ibilbide luze eta oparoa duten bi egile.
- Best seller-a Frantzian.

JACOB GAUEKO LANGILEA

Matz & Léonard Chemineau

Itzultzailea: Bego Montorio

Alexandre Jacobek ezohiko bizitza izan zuen. Frantzia hankaz gora jarri zuen bere lagun taldearekin, kazetariak «Gaueko langileak» izendatu zutena, hamaika desjabetze eginda. Ohar umoretsuak uzten zizkien lapurtzen zituen aberatsei, eta argi uzten zuen ez zela beren poltsikoak betetzeko, ezpada gizarte ustela eraitsi eta beharra zutenen artean banatzeko.

Artean mutikoa zela, mundua korritu zuen ontzi-mutil eta marinela lanetan. Ikasbide izan zuen ikusitakoa, eta ideia anarkistekin bat egin zuen. Injustizia eta hipokrisia jasangaitzak bihurtu zitzaizkion, eta horiei aurre egiteak kartzelara eta lanik ezin topatzera eramane zuten. Orduan ekin zien desjabetze antolatuei. Epaiketa entzutetsu baten ondotik, non epaileaz eta epaimahakideez trufatu baitzen, bizitza osorako bortxazko lanetara kondenatu zuten uharte bakartu batean. Haren ibilbidea ezagututa, ordea, nekez pentsatuko dugu hola bukatuko zituela bere egunak; urte eta bizimodu gogorren ondoren, itzultzeko modua ere aurkitu zuen.

Zintzoa eta zuzena, argia eta eskuzabala, sutsua eta sentibera, Alexandre Jacobek lilura sortu izan du, lehen bezala orain, ustez Arsène Lupin pertsonaia inspiratzeraino. Gizon kementsu baten historia epikoa da hau, munduan oihartzun egiten jarraitzen duena.

**MATZ**

Normandian jaioa da, 1967an, nahiz eta Martinikan hazia den. Txiki-txikitatik izan du komikia zaletasun, eta Zuzenbidea ikasi arren, idazketara aldatu zen ikasketak amaitu eta berehala. Literaturaren eta musikaren erreferentziak eta iturriak darabiltza, bideo-jokoetarako gidoiak sortzen ditu eta hogeitaz liburutik gora idatzi ditu, gehienak, komikiak.

**LÉONARD CHEMINEAU**

Ilustratzaile frantsesa da (1982). Ingeniaria da ikasketez, garapen jasangarrian eta ingurumenean aditua, nahiz eta komikigintza duen gaur egun ofizio. Angulemako jaialdian nabarmendu zen lehenengoz, talentu gazteen lehiaketan, 2009an. Orduetik, bost komiki argitaratu ditu.



Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus